

Karlos Solana Arruti / DYAKO BOLUNTARIOA

“Une gogorrak bizi izan ditugu pertsonen aurpegietan beldurra nabaritzen zelako”

► Zergatik sartu zinen boluntario gisa DYAn?

Nire grinetakoa bat mendia da eta bertan istripu asko egoten dira. Gainera, nire bizilagun bat eskaileretatik erori eta koman gelditu zen. Ni izan nintzen laguntzera ailegatu zen lehenengoa; ondo egin nuen, baina gehiago prestatzea erabaki eta DYAn sartu nintzen.

► Zer ekintza burutu dituzue?

Kolektibo zaurgarriari erosketak egin, sendagaiak etxeetara gerturatu, DBus, Renfe edo Euskotreneko hainbat egoitzetan maskarillak banatu, herritarrek beren etxeetan egindako maskarillak eta pantailak jaso eta banatu ditugu, besteak beste. Azkenaldian, hainbat lekutan pertsonen tenperatura neurketa ere burutu dugu. Halaber, elikagai bankuarekin elkarlanean aritu gara, eta ambulategi, ospitale edo erresidentzietan desinfektatze

lanak ere egin ditugu, baita arrantzaleei COVID-19aren probak egin ere. Emozio handiko uneak bizi izan ditugu.

► Une hunkigarriak bizi izan dituzuela adierazi duzu. Baten bat nabarmenduko zenuke?

Bai, asko. Egun batean supermerkatu batera joan ginen eta, bat-batean, honakoa entzun genuen megafoniatik: “DYAko boluntarioak daude hemen erosketak egiten gero etxeetara eramateko; txalo bero bat berentzat”. Musika jarri eta dantza eginarazi ziguten; oso hunkigarria izan zen. Une gogorrek ere bizi izan ditugu, pertsonen aurpegietan beldurra nabaritzen genuelako. Mendaroko eta Eibarreko ospitaleetan desinfekzio lanak egitera joan eta lanaldi aldaketekin kointziditzen zuenean, osasun-langileekin elkartzen ginen eta oso hunkigarria zen, gu ikusteko



irrikan zeudela baitzirudien.

► Zein mezu emango zenieke herritarrei?

Maizago dei egitera animatuko nituzke, ezagutzen ez diren zer-

Hola Donostia,
Somos fans de tu Sonrisa



“Behin, supermerkatu batean, megafoniatik eskerrak eman eta dantza egitera atera gintuzten”

bitzu asko baititugu. Adibidez, bakarrik bizi diren pertsonak DYARA jo dezakete kalera buelta bat ematera ateratzeko edo edozein lekualdaketa egiteko. »